

XLIII. VILLABONAKO SANTIOTAKO KROS HERRIKOIA

Zunbeltz Elkartea

ARAUTEGIA

1. artikulua: Villabonako Zunbeltz Elkartek, Santiotako festetako egitarauaren baitan, XLIII. Santiotako Krosa antolatuko du 2025ko uztailaren 25ean, 11:30etan.

Lasterketa honetan edonork parte har dezake, edozein kategoria, sexu, edo hiritasuna duela ere, kirolari federatua bada edo ez.

2. artikulua: Lasterketa adinaren arabera izango da:

- 2009-2010 artean jaioak ibilbide nagusiari buelta bat (2,5Km)
- 2007-2008 artean jaioak ibilbide nagusiari bi buelta (5 Km)
- 2006 eta aurretik jaioak ibilbide nagusiari hiru buelta (7,5 Km)

3. artikulua: Izen ematea aurretiaz internet bidez egingo da www.kronoak.eus helbidean eta doan izango da. Lasterketa momentura arte izena emateko web orria erabilgarri egongo da. Dortsala lasterketa egunean jasoko da Zunbeltz elkartean.

4. artikulua: Ibilbidea Villabonako kaleetan zehar izango da, Txermin auzotik Arroa auzora bitartean. Lasterketa irteera 11:30etan izango da.

5. artikulua:

Kadeteak	2009-2010 artean jaioak	11:30etan	Ibilbide nagusiari buelta bat (2,5Km)
Jubenilak	2007-2008 artean jaioak	11:30etan	Ibilbide nagusiari bi buelta (5Km)
Proba nagusia	2006 eta aurretik jaioak	11:30etan	Ibilbide nagusiari hiru buelta (7,5Km)

6. artikulua: Sariak ondokoak izango dira:

- Helduen kategoriak (proba nagusia): Lehenengo emakume eta gizonezkoarentzat garaikurra.
- Gazteen kategoriak (kadeteak eta juveniak): Lehen neska eta mutilarentzat garaikurra.
- Parte hartzaileen artean sari ezberdinekin zozketak egingo dira.

7. artikulua: Antolatzaileak probaren segurtasuna eta araudia betetzen dela ziurtatzeko, udaltzainen, boluntarioen eta sanitarioen laguntza izango du.

8. artikulua: Korrikalariak onartzen du egoera fisiko egokia duela jardura hau egiteko. Antolatzaileak parte-hartzaileei lasterketa baino lehen mediku azterketa egitea gomendatzen die, partehartzaile bakoitzak eduki dezakeen arriskuez ohartarazteko.

9. artikulua: Antolatzaileak ez dira proba honetan norberak bere buruari edo besteren bati egin lekioken kalte edo lesioen erantzule, ezta besteren batek parte-hartzaileari egin lekioken kaltearena ere.

10. artikulua: Antolatzaileak istripu kolektiboen aseguru poliza du.

11. artikulua: Lasterketan parte hartzen duten korrikalariak proba honetako araudia onartzen dute.